


## GIPUZKOAKO KANPANDORREAK

Kanpandorrean bizi den  
uso zaharra  
ez da dorrearen harriak baino  
gehiago higitu  
su-kanpaiak jo dituztenean:


Ez da higitu,  
ez kanpaiaz ez suaz.

JosAnton Artze




**1.- ADUNA.- JASOKUNDEKO ANDRE MARIARENA**

*Eliza nagusia XVI. mendekoa da. Baina fatxada gotikoak bere ojiba-arkuarekin, arkibolta eta guzti, lehenago egongo zen eliza bat adierazten digu. XX. mende hasieran eraikitako kanpandorrearen berezitasuna bere erpin luze eta zorrotza da, alegia, arbelezko estalkia duen piramide bat eta ertzetan beste txikiago batzuk erremate. Honek, bere kokapena kontutan hartuta, paisaia nabarmentzen du.*



**2.- ARANTZAZU BASILIKA.- ARANTZAZUKO AMA**

*1950-1955. urte bitartean eraiki zen, Francisco Saez de Oiza eta Luis Laorga arkitektoen gidaritzapean. Modernoa eta abangoardista. Bere garaiko Euskal Herriko artistarik onenak bildu zituen, arte berriaren ikur gertatu zelarik. Kanpoan, berezita, 45 bat metroko garaiera duen kanpandorre bat dago, diamante puntaren formarekin landutako kareharrizko blokez forratua.*




### 3.- EIBAR.- SAN ANDRES

*XVI. mende hasierako eliza gotikoa. Gero aldaketa eta zabalkuntza batzuk izan zituen, hain zuzen errenazimentu eta barrokorantz. Gauza bitxia bada ere, bi abside ditu, XVII. mendean norabidez aldatu zuten eta. Kanpandorreak, Frantzisko Isasi jesuitak 1646an egina, barroin poligonala du eta bertan baoak eta erlojuak ageri dira. Gorago dago ezkilategia, eta are gorago kupulatxo bat, pinakulu altuz bornitua, gainean gurutze bat duela.*




**4.- GETARIA.- SAN SALVADOR**

*1429an eliza jada altxatua zegoen. Gotikoa da. Oteizak dioenez, Euskal Herriko elizen artean katedrala” da edo “euskal elizen katedrala” da. Dorrearen trazak Pedro Lazagak egin zituen eta eraikuntza 1525ean hasi zen eta 1755ean bukatu. Dorrerik zabarrean ipar aldean dagoena da. Bere izena Inksizioko dorrea eta lepatuta dago.*



**5.- ITZIAR.- ITZIARKO ANDRE MARIA**

*Gaur ikusten den eliza, XVI. mendeko platereskoa, lebengo zabarraren gainean jasoa dago. Kanpotik taxu zorrotz eta itxura soilekoa. Baina, adituen iritzian, Euskal ikonografian Irudi zoragarrienetakoa: Itziarko Amabirjina. Irudi bonen gauzarik barrigarriena bere ezpainetako irribarre gozoa da. Iritzi orokorra Erromanikoa dela da, -bere itxuran dio- eta XII. gizaldi ingurukoa.*



**6.- LEGAZPI.- JASOKUNDEKO ANDRE MARIA**

*Gaur egunera iritsi den eraikina 1700ean hasi ziren egiten, eta 20 urteren buruan amaitu. Eliza osoa inguratuz 1762an Martin de Carrerak diseinatutako zirkuluerdiko arkuz osatutako arkupe bat dago. Iparraldeko sarrera nagusi dintelduaren gainean kanpandorrea dago, oinplano lauki formakoa eta bi solairukoa, kanpaientzako lau bao dituela. 1480ko kanpai handia gordetzen da, urteko grabazio eta guzti.*






**7.- LEZO.- SANTO KRISTOKO BASLIKA**


*Ermite txiki bat izan zen basieran. Barruan, Kristo gurutziltzatuaren X. mendeko irudi bitxi bat gordetzen da; ez du bizarrik eta Bizantzioko estiloan landuta dago. XVI. mendean Kristo honekiko mirespena banditzen hasi zen. Hori dela eta, gaur egungo harlanduzko eliza errenazimentukoa sortu zuten.*






**8.- ORERETA. JASOKUNDEKO ANDRE MARIA.1550-1570**

*Jatorrizko dorrea, hondaturik baitzegoen, 1896. urtean berreraiki zen, estilo neogotikoan. Orduan eman zitzaion gaur egun duen itxura. Eliza bonek badu bereizgarri aipagarri bat: dorrearen azpian dagoen ganga-formako pasabidea, "Mikela-zuloaren arku" izena duena. Goizuetara doan errege-bidea iragaten da.*




### 9.- PASAIA DONIBANEKO ELIZ DORREA

1643koa. Kanpoko fatxada errementaritza zorrotza da. Estilo garbia, matematikoa, soila eta monumentalak du. Kanpai-horma batek amaitzen du. Benetako dorrea atiko neoklasiko horretan datza.




**10.- SEGURA.- JASOKUNDEKO ANDRE MARIAREN ELIZA**

*XVI. mendeko euskal gotikoko adierazgarria. Areto eliza edo hallenkirche motakoa da. Dorrea berriz Juan de Bolivarren traza-rekin XVI. mendean eraikia.*



**11.- USURBIL.- SAN SALVADOR**

*1591n eraikitako eliza. Dorre barrokoa, 1760-1765 bitartean Francisco de Iberok eraikia... "zenbat izerdi, odol eta nigar / kosta ote zitzaizkien Ameriketako Inditarrei... e, Etxebeste jauna...!" Joxean Artze.*



**12.- ZARAUTZ.- ZARAUTZ DORREA (XV. MENDEA)**

*Lau solairu gotiko ditu, eta azkeneko solairua XVII. mendean gehitu zitzaion, kanpaiak jartzeko. Gaur egun, Parrokia da dorre horren jabea; baina, jatorrian, Udaletxea kokatzeko eraikuntza zibila izan zen. Baina historian zehar udal-ziega, ale-biltegia eta alondegia, udaleko kabildoa biltzeko gela, komentu, kanpandorre, Museo e. a. izan da.*